DINSA enpresak aurkeztutako aurrekontuan, Udalak eskatutako hainbat informatikako ekipo eta programa sartzea falta dira.

Beraz, ICB enpresari, Artxibo Sistema osatzeko informatikako ekipamendua, 1.522.232,- peztatan adjudi-katzea, aho batez onartu da.

10.- OTSABIO MENDIKO BASO SUBASTA

Alkateak hitza harturik, Lizartzako Udalaren "OTSABIO" izeneko 2.054.3 zk. herri onurako mendian dutikako egur ustiaketa egiteko baldintza bereziak aurkeztu ditu, eta honela diote:

1.- Ustiaketaren Ezaugarriak

Baldintza Orri hau, aipatu mendiko lurzati batzutan erabat moztuz (soilketaz) eta behe bakanketak eginez (entresakaz) egin behar den egur ustiaketari dagokio, ondoren azaltzen den eran.

1.1. Ustiaketaren Kokapena

Mendiaren plano ofizialeko ondorengo unadak:

- 6 zk. unada: Intsinis pinuarekin (P. radiata) 0,32 ha.
- 16 zk unada: Intsinis pinuarekin (P. radiata) 2,21 ha.
- 8 zk. unada: Intsinis pinuarekin (P. radiata) eta Alertze pinuarekin (Larix kaempferi) 2,11 ha.
- 11 zk. unada: Alertze pinuarekin (Larix kaempferi) 1,25 ha.

1.2. Benetan han dagoena

Intsinis pinua (P. radiata) espezieko 2.897 oin eta Alertze pinua (Larix kaempferi) espezieko 822 oin.

Horietatik:

- * Intsinis pinuko 2.897 oin, soilketaz ustiatzekoak (matarrasaz) 6, 8 eta 16 zk. unadetan.
- * Alertze pinuko 822 oin, behe bakanketaz ustiatzekoak (entresakaz), 11 zk. unadan eta soilketaz ustiatzekoak (matarrasaz) 8 zk. unadan.

1.3. Gutxi gorabeherako zenbatekoa

Kalkulatu den bolumena honako hau da:

- Intsinis pinuko (P. radiata) 2.897 oinentzat, errealean, azalarekin eta puntarik mehenean 7 cm-raino neurtuta 1.990,99 m³-koa da, gutxi gorabehera.

- Alertze pinuko (Larix kaempferi) 822 oinentzat, errealean, azalarekin eta puntarik mehenean 7 cm-raino neurtuta 128,62 m³-koa da, gutxi gorabehera.

1.4. Tasazioa

- Enkantearen oinarritzko prezioa: 10.700.000,- Pezta
- Prezio Indizea: 13.375.000,- Pezta

Oharra: BEZari dagokionean, erabilgarria den karga mota %4koa da eta prezio hauetan sartuta dago.

1.5. Produktua Ordaintzeko merkataritza oinarria

- * Arrisku edo zoriaren arabera.

1.6. Egiteko Epea

- * 1.996ko Irailaren 30ean amaituko da.

1.7. Fiantza

Behin-betiko adjudikazioaren 4%koa izango da. Pliken aurkezpenean 2% jarri beharko da; beste 2%a, behin-betiko adjudikazioa egindakoan.

2.- Baldintza Orokorrak

Ezaugarri Teknikoen Orri Orokorrean (76.08.21eko 200 zk. EBOko 24.04.1975 Ebazpena), eta Ezaugarri Teknikoen Orri Berezian (76.08.20ko 199 zk. EBOko 06.05.1975 Ebazpena) xedatutakoak beteko dira.

3.- Baldintza Bereziak

3.1. Egurra ateratzeko bideak

- 3.1.1. Gaur egun mendian daudenak, bere oraingo egoeran. Horretarako beste edozein bide konpondu edo egin behar bada, Baso Zerbitzuari eskatu beharko zaio eta hark baimena emanaz gero, errematatzailerak berak finantzatu du.
- 3.1.2. Mendira iristeko edo bertan ibiltzeko bide nagusiek, beti, erabiltzeko modu egokian egon beharko dute.
- 3.1.3. Probetxamendua amaitu ondoren, esleipendunak erabili dituen bideak baldintzari onenean utzi beharko ditu, zoladura berdinduta eta zeharkako isurbideak jarriz 100 m. bakoitzeko, basozainak seinalatutako moduan.
- 3.1.4. Ezingo dira erabili mozketako lekuan lehendik dauden bide zahar edo harrasta-bideak.
- 3.1.5. Egurra harrastaka eramaten duten makinek ezingo dira ibili mozketan egiten ari den tokian Basozaintza Zerbitzu honen baimena ez badute behintzat, beren lana egun dauden edo eraikiko dituzten bideetan egin beharko dutelarik.

4.- Esleipena egiteko era

Enkante Publikoan.

5.- Baldintza Ekonomikoak

Tasak: 228.377,- Pezta

Behin-betiko adjudikaziotik 20 eguneko epean, esleiatzaileak, Gipuzkoa Donostia Kutzako 295904-7 kontuan adjudikazio balorearen %15a sartu

beharko du "Mendi Komisio Probintziala"ren izenean eta Mendiaren hobetze kontzeptuepean, 54. artikulua eta Gipuzkoako 6/1994 uztailak 8ko Mendi Arau Foraleko 1. go Xedapen transitoriaren arabera eta behin-betiko adjudikazioaren 50%, Gipuzkoa Donostia Kutxan, Lizartzako Udalaren izenean dagoen 220630-8 zenbakidun kontuan.

Gelditzen dena, behin-betiko adjudikaziotik, hiru hilabetera.

6.- Pliken Aurkezpena

Proposamenak kartazal itxian aurkeztuko dira Udal Idazkaritzan, lanegunetan eta bulego orduetan, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasi eta plikak zabaltzeko izendatu den eguneraren bezperako eguerko hamabiak arte.

7.- Pliken Zabaltzea

Enkantea Udaletxeko Bulego Lokalean egingo da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitara ematen denetik kontatutako hogeitun lanegunen ondorengo hurrengo lanegunaren eguerdiko ordubatean.

Subasta honen lehenengo enkantean inor aurkeztuko ez balitz, automatikoki bigarren fase bat egingo litzateke 10 egun beranduago. Leku eta ordu berean eta baldintza berdinekin.

8.- Bestelako Arauak

- 8.1. Uneoro, Zerbitzu honetako pertsonalak emandako jarraibide eta aginduak bete beharko dira, bai mozketari dagokionez, bai beste edozein oharpideri dagokionez.
- 8.2. Mozteko seinalatutako zuhaitz guztiak moztuko dira eta derrigorrez, ustelduta edo zutik lehortuta geratu direnak. Lehor horiek gainera

inolako aitzakirik gabe probetxatu egin beharko dira, beti ere, trontzoko batz besteko diametroa 20 cm-koa edo handiagokoa bada behintzat.

8.3. Mozketa egin ondorengo motzondoan altuera ez da 10 cm. baino gehiagokoa izango ur goinean.

8.4. Zuhaitzen erorpina zutik geratzen direnei (behe bakanketa egin ondoren gelditutakoei) ahalik eta kalterik gutxien eginez egin behar da.

8.5. Arreta berezia duki beharko da egur piloa, 2 estereo baino gehiagokoa ez denean, arrastaka eramatekoan zuhaitzak ikutu gabe egiten. Dena dela, kalteak saiestu beharrezkotzat joko balira, indemnizatu egin beharko dira.

9.- Proposamen Eredua

..... jaunak/andereak (e)an egoitza duenak eta (e)n emandako N.A.N. duenak, gaitasun juridiko eta ihardutekoaren jabe delarik, bere izenean (edo (r)en izenean), 1.996ko ren (e)ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean .. zenbakian argitaratutako baso probetxamendurako enkantean parte hartuko du, eta beharrezko ondorioetarako adierazten du:

- a) (hizki eta zenbakietan) pezetatako salneurria eskaintzen duela.
- b) Bere erantzukizunpean deklaritzen du, Udal Korpora-zioetako Kontratazio Erregelamenduko 23. artikuluan aurrikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kasuetan ez dela sartzen.
- c) 1.972ko uztailaren 14ko Gobernazioko Ministrari Aginduko 2. artikulua eskatzen duen erantzukizuneko Enpresa Karnetaren jabe dela.
- d) Dagokion sortaren enkantean parte hartzeko behin-behineko bermea frogatuz ziurtagiria dakarrela.

- e) Enkanteko Baldintzen Pleguan azaltzen diren puntu guztiak onartzen dituela, eta halaber bertatik erator daitezkeen betebeharrak guztiak.

Lizartzako Udalaren "Otsabio" izeneko 2.054.3 zk. herri onurako mendian zutikako egur ustiaketa egiteko baldintza berezien orrian, aho batez onartu da.

11.- 1.996-05-01erako ERROLDA BERRIKUNTZA EGITEKO KONTRA-TATU BEHAR DEN PERTSONALAREN KONTRATAZIO OINARRIAK

1.996ko maiatzaren 1etik aurrera egingo den padroiaren berrikuntzarako agenteak kontratatu eta, beren ordainki-zunak bai kontratazio baldintzak ere finkatzeko, oinarrien proposamena kaurkeztu dira, eta honela diote:

Gaia: 96ko biztanleen udal-errola eta biztanlego eta etxebizitzari buruzko estatistika berritzeko lanak, lan horietarako agenteak kontratatzeke oinarriak.

1.996ko maiatzaren lehena erreferentzi hartuta, eska-tutako biztanleen udal-errola eta biztanlego eta etxebizitzari buruzko estatistika berritzeko lanak egiteari begira, indarreango legeak ikusirik, Udal honako, honako hau ERABAKI DU:

- 1.- 96ko biztanleen udal-errola eta biztanlego eta etxebizitzari buruzko estatistika burutzeko lanetarako, AGENTE BAT, aldi baterako kontratatzea onartzea, lan eta zerbitzu jakin baterako kontratu bidez, martxoaren 24ko 1/95 Legegintza-Dekretuak onartutako Langileen Estatu-tuaren Legearen testu bateratuaren 15. atalean (1. azpiatala, a letra) eta 15. atal hori garatzen duen abenduaren 29ko 2546/94 Errege-Dekretuan zehaztutakoaren menpe.
- 2.- Estatistika-Sekzioak erredaktatutako oinarriak onartzea eginkizunen arabera, 1.995eko irailaren 25eko Ministro-Aginduan eta INE eta Eusko

Jaurlaritzaren jarraibideetan arautzen denarekin bat etorritz. Agentearen hautaketa eta kontratazio oinarri horien arabera egingo da.

1.- HELBURUA

Agente bat aldi baterako kontratatzea 1.996ko maiatza-ren 1eko biztanleen udal-errola eta biztanlego eta etxebizitzari buruzko estatistika berritzeko lan jakinak egiteko, egoera zehatzen eta baremazio-modulu eta lanaldien menpe, bai eta oinarri hauen ondorengo klausuletan zehazten diren lanak ordainduz.

2.- EGIN BEHARREKO LANAK

Agenteak egin beharreko lanak hauek dira:

- Eskatutako sekzioaren krokisak eguneratzea. Eraikin edo etxebizitzaren identifikazioen aldaketan berri ematea inte-resdunei, hala badagokio.
- Biztanleen udal-errola eta biztanlego eta etxebizitzari buruzko estatistikaren itaunketa-orriak, bai eta eragi-ketan tajututako gainontzeko agiriak ere, ematea, jasotzea betetzea, hala badagokio, berraztertzea, orraztea eta egiaztatzea.
- Beharrezkoa denean, itaunketa-orrietan isladatutako pertsonak ez badaude edo aldaketak badaude, orriak zurian aurkeztuko dira edo, beharrezkoa izanez gero, behar dena beteko da.
- Lanak aurrikusitako epeetan burutzea.
- Prestakuntza -eta hobekuntza- ikastaldietara joatea.
- Bide-koadernoak eta lan-xehapenen orriak betetzea.

- Eusko Jaurlaritzak argitaratutako agentearen eskuliburuan eta hautatutako agenteei emandako gainontzeko dokumentazioan zehaztutako egiteko guztiak.

3.- IRAUPENA

Kontratuaren helburua den lana burutzeko behar den denbora. Zerbitzua burutzen denean amaituko da eta kontratuan zehaztutako eskubideak besterik ez du ekarriko kontratuaren aldean. 350 etxebizitza baino gutxiagoko sekzioak dituzten Agenteen kasuan hilabetekoa, 500 etxebizitza bitarteko sekzioak dituzten agenteen kasuan hilabete t'erdikoa eta 500 etxebizitza baino gehiagoko sekzioak dituzten kasuan bi hilabetekoa.

4.- ORDAINSARIAK

Udalak erroldatze-agenteei egindako lanei dagokien diru-kopurua ordainduko die. Lan horiek ondorengo baremoen arabera baloratuko dira (aparteko ordainsariak ere baremoaren barruan daude):

- 1.- Krokisak eta sekzio-bidea eguneratzea, datuak aurkeztea betetzea edo egiaztatzea, eta errolda-orriak eta biztan-lego eta etxebizitzari buruzko estatistikari buruzko orriak jasotzea, beti ere, lana guztiz amaituta badago zehaztutako epean, 20.000 eta 30.000 pezta bitartean.
- 2.- Udal-errolda eta biztanlego eta etxebizitzari buruzko orriak behar bezala beteta eta egiaztatuta jasotzea okupatutako etxebizitzari dagokienez, 200 pezta orriko.
- 3.- Etxebizitza hutsei buruzko orriak jasotzea, 60 pezta orriko.
- 4.- Erroldaratutako eta egiaztatutako biztanle bakoitzeko, 70 pezta.

5.- Erroldaratze-bulegora joateko tokiz aldatzea beharrezkoa eta ezinbestekoa izanik, sekzioetatik garraibidea erabiltzea beharrezkoa denean, 36 peza kilometroko.

5.- OPORRAK

Oporraldien iraupena 2,5 egunekoa izango da lan-hilabete bakoitzeko. Oporraldiak kontratuak indarrean dirauen bitartean hartuko dira, zerbitzurako garai egokienean.

6.- BETEBEHARRAK

Kontratutako erroldatze-agenteei eragiketa honetan agindutako eta oinarri hauen 2. zenbakian adierazitako lanak egin beharko dituzte.

Beren egitekoa betetzen ari diren bitartean ezin izango dituzte etxez etxeko bisitak erabili oinarri hauetan jasota ez dauden beste helburu batzuetarako.

Lanbide-sekretuari buruz indarrean dauden arauak zintzo betetzea, indarreango legedian araututakoa, norbanako, enpresa edo beste edozein baltzuri bere lanak dela medio dakizkiten datu, adierazpen edo argibiderik ematea debekatuta daukatela.

Lanean ari diren bitartean agerian eramango dute identifikazio-txartela.

7.- FROGALDIA

Frogaldia hilabetekoa izango da, Langileen Estatu-tuaren 14. atalean eta 2104/84 Errege-Dekretuan zehaztuta-koaren arabera (martxoaren 24ko 1/95 Legegintza-Dekretuz onartutakoa).

8.- AGENTEAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Lizartzan erroldatuta egotea.
- 16 urtetik gora edukitzea.
- Euskara idatziz menperatzea.
- Graduatu Eskolarra edukitzea.

9.- AUKERAKETA

Agentearen aukeraketa, izena eman duten guztien artean, sortez egingo da.

10.- KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Udalbatzarrak kontratua deuseztatzeko eskubidea dauka baldin eta:

- a) Indarrean dagoen legedian zehaztutako arrazoiak gertatzen badira.
- b) Egindako lanek behar den gutxienerako egokitasuna ez badaukate edo zehaztutako epean ez badira burutu.
- c) Kontratatuak maltzurkeriaz jokutzen badu edo iruzur egiten badu.
- d) Oldarpenez jokutzen badu.

96ko biztanleen udal-errolda eta biztanlego eta etxebizitzari buruzko estatistika berritzeko lank egiteko agentea kontratatzeke oinarriak, aho batez onartu dira.

12.- GIPUZKOAKO UDALETAKO GIZARTE ZERBITZUAK FINKATZEKO INSTITUZIOEN ARTEKO, LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEKO, ALKATE-LEHENDAKARIARI AHALMENA EMATEA

Gipuzkoako Udaletxeko Gizarte Zerbitzuak finkatzeko, Instituzioen arteko, Lankidetzazko Hitzarmena sinatzeko, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakaria den, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Jaunari, ahalmen osoak emateko erabakia onartu da.

13.- ZIZURKILGO ALKATEAREN PROPOSAMENA

Alkateak, hitza harturik, Zizurkilgo Alkateak, onartu eta sinatzeko, Tolosaldeko Alkateei luzatutako proposamenaren berri eman du, eta literalki, honela dio:

Dagokionari:

Gipuzkoako Tolosaldea eskualdeko Alkate izan eta agiri hau sinatzen duten alkateek ondorengo kontsiderazioak jakinarazi nahi dizkizute euskal presoek eta beraien senitartekoei jasaten duten tratamendu penitentzarioaren inguruan:

- 1.- ETArekin zerikusia duten 500 baino euskal preso gehiagori ezartzen zaien dispersio politika penitentzarioak hautsi egiten du Araudi Penitentzario-riko 8. artikulua, Lege Orokor Penitentzarioaren 12. artikulua eta Europear Parlamentuaren eta Nazioarteko Legediaren gomendioei aurka egiten die.
- 2.- Politika hau presoen eta beren senitartekoen giza eskubideen bulnerazio bat da, inpunitate esparruak sortzea errazago egiten du eta egoera irregularrak bideratzen ditu, hala nola, aislamendua, tratu txarrak, intimitatearen bortxaketa eta espetxeratutakoen senitar-tekoiei ezartzen zaien zigor gehitua.
- 3.- Gatazka bortitz bat jasaten duen gurea bezalako herrialde batetan, dispersio politika gizarteko sektore baten tentsionamendu eta hasarrerako faktore ere bada, pakea lortzen lagundu beharrean, horretarako bidea zaildu eta oztopatzen duena.

- 4.- Preso bat kondenatu edo salatzeko arrazoi izan diren ekintzak edozein izanda ere, pertsonaren duintasunari egokitutako ekinbide penitentziario bat ez da bakarrik ekinbiderik gizatiarrena, baizik eta baita ere onargarri bakarra eta eskubide estatu baten printzipioak gordetzeko eta giza eskubideen nagusitasuna bermatzeko eraginkorrena.
- 5.- Euskal presoan dispertsio eta urruntze politikaren amaiera, beraz, giza eskubidezko eta legezko betebeharrak gizatiar bat da. Baina, gainera, euskal gatazkaren markoan, pakeruntz aurrera egiteko laguntza demokratiko bat da.
- 6.- Agiri hau sinatzen dugun kargu publikoak konprometuz tinko eta aktiboak dugun pakearekin, giza eskubideen eta eskubide estatuaren printzipioen defentsarekin. Guzti hori dela eta, instantziei eskatzen diegu baliabideak jarraitzea eta beharrezko ekintzak gara ditzatela, ondorengo arloetan legea betetan bete dadin:
- a) Presoen eta senitartekoen giza eskubideak baldintzarik gabe errespetatu daitezkeen bermatzea.
 - b) Euskal presoan dispertsio eta urruntze politikari amaiera jartzea, legeak adierazten duen moduan, presoak, bere ingurune sozial eta familiarretik gertuen dauden espetxeetan, batu eta gerturatzean oinarritutako politika penitentziario bat garatzeko.
 - c) Baldintzapeko askatasuna ezartzea legeak ezarritako baldintzak beteaz, beraien kondenaren hiru laurdenak beteak dituzten presoak.
 - d) Baldintzapeko askatasuna ezartzea gaisotasun larri edo atzerazinezkoak dituzten presoak, Araudi Penitentziarioko 60. artikulua adierazten duenaren arabera.
- 7.- Manifestu hau sinatzen dutenek ondorengoetara bidaltzen dute beraien: Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordea, Europar Parlamentuko Giza

Eskubideen Batzordea, Arazo Penitentzarioetako Estatuko Idazkaritza, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordea, EUDEL, euskal alderdi politiko guztiak eta lehendakaria, Ajuria Eneako Mahaieko lehendakari denez.

Zizurkilgo Alkateak, Tolosaldeko Alkateei luzatutako proposamenari adostasuna ematea, aho batez onartu da.

14.- GOLTZUR ZELAI

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Denbora dexente igaro dela, Goltzur Zelaiko Proiektorearen Aurrerapenari onarpena eman zitzaiola.

Onarpen hori ematerakoan, proiektuak ikuitzen dituen lur jabeekin bilera bat egitekotan gelditu zela, baina gaur egun arte ez dela burutu.

Hori dela eta, berriro alegazioak egiteko epea, beste hilabetean luzatu eta, Apirilaren 23an eguna jartzea, lur jabe hoiekin bilera egiteko, proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

15.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

LADIS ZUBILLAGA ZUBILLAGA Jaunari, Guk Nahigenduena, 2. esk. sukaldeko berrikuntza obrak egiteko baimena eman zaio.

BEGOÑA BALERDI URDANPILLETA Andreari, bere etxeko berogailuaren aldaketa egiteko baimena eman zaio.

ROSARIO URDANPILLETA GOGORZA Andreari, Guk Nahigenduena, 1. goa ez.an obrak egiteko baimena eman zaio.

ZUBELDIA ALTUNA Sendiei, Plaza Aurre etxearen ate nagusiaren alboan kanpoko aldetik, errotulo bat jartzeko baimena eman zaie.

GIPUZKOA DONOSTIA KUTXAri, Toki Alai Etxean obrak egiteko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

- 1.- Inolaz ere ez dira obrak hasiko ez badira aldez aurretik egiaztatzen bai obra partikularren eraikuntza eta errekonozimenduaren eskubide eta tasen ordainketak egin direla Udal Fondoen Gordailu Zaintzan, haiei dagozkien Exakzio Ordenantzen arabera.
- 2.- Aurrean ezarritakoa bete gabe egikaritzen hasitako obra klandestinoztat joko da, eta dagozkion zehazpenak ezarriko zaizkie.

OBRAK EGIKARITZEN ARI DIREN BITARTEKOAK

- 3.- Obrak, Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoak, 1.995eko uztailaren 8ko dataz bisatutako proiektua eta Girolan etxeak aurkeztutako Agiri Teknikoei egokituko zaizkie.
- 4.- Obrak, lizentzia ematen den egunetik hasitako SEI HILA-BETEKO epean hasiko dira, erabat buruturik izan beharko dute, onartutako proiektuen arabera 18 Hilabeteko epean.
- 5.- Eraikuntzak dirauen bitartean, Eraikuntzako Udal Ordenantzatako arau eta ebazpen guztiak hertsiki beteko dira, inolako aitzakiz, punturik txikienean ere, onarturiko proiektua aldatu gabe, aipatu Ordenantzetan ezartzen denez, idatziz eskatutako Udal lizentzia eskuratu ez bada. Ordenantzak betetzen ez dituzten obrak interesdunaren kontura eta beraren arriskutan eraitsiko dira.
- 6.- Obrak dirauten bitartean, lizentziaren titulartasuna aldatuko balitz, Udalari jakinerazi beharko zaio.

OBRAK AMAITUTAKOAN

7.- Lizentziaren titularrak, obrak amaitutakoan, berauen ikuskapena eskatuko du. Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztuko dira:

- a) Beharrezko baimenarekin aldaketaren bat gertatu izan balitz, obra geratu den behin-betiko egoeraren planoak, bertan birmoldatuz gertatu diren aldaketak, espedientean zehaztasunez jasorik gera daitezzen.
- b) Obra Zuzendariaren ziurtagiria, obrak, onetsitako proiektuaren eta bereziki ezarritako baldintzen arabera egikaritu direla baieztatuaz.
- c) Obra lizentziaren tasaren behin-betiko likidazioa egitearren, obren eta egindako instalazioen benetazko kostua kreditatzen duen ziurtagiria, dagokion Kolegio Ofizialaren bisatuarekin.

JOSE ANTONIO BALERDI URDANPILLETA Jaunari, Zortzikoa etxean obrak egiteko baimena eman zaio.

UBERETAKO ZUBIA eraberritzeko proiektuaren erredakzioa berak aurkeztutako lan proposamenaren arabera, JOSE M^a BRAVO ALBIZU, Udaleko Arkitektoari adjudikatzea.

UDALAREN DEFENTSA LETRATUA:

IKUSIRIK, Lizartzako Laguntzazko Arauetako 3. Areako Desjabetza Espedientearekin afektatutako erasandako ondasun eta eskubideen okupatu beharraren erabakia behin betiko onartuaz, Udal honek, 1.995eko Urriaren 18an hartutako erabakiaren aurka ezarritako, 241/96-2 zenbakidun errekurtoa.

ERABAKI DU:

- 1.- 1.993ko urriaren 14ean egindako Bilkuran hartutako erabakiaren arabera, Udalaren defentsa letratua, aurreko abokatu eta prokuradoreei ematea.

ABOKATUA: FELIPE GOMEZ ARRIARAN

BILBOKO PROKURADOREA: ALBERTO ARENAZA ARTABE

MADRILEKO PROKURADOREA: ENRIQUE DE ANTONIO VISCOR

- 2.- Hurrengo Bilkura Nagusian, Udal Batzarrari, Ebazpen honen berri ematea, bere ratifikapenerako.

LUIS AGIRRE ZABALA Jaunari, Zumitza Berri Etxearen 1go pisuan obrak egiteko baimena eman zaio.

FRANCISCO OLAETXEA KARRERA Jaunari, Txabola egiteko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

- 1.- Txabola hori egiteko baimena, behin-behingo (noiz nahi uztekotan) izakerarekin emango zaio, zona horren geroko hazkundera mugatu ez dezan, eta beraz, txabola hori botatzean, ez da inongo kalte-ordainik egongo.
- 2.- Txabolaren neurria gehiengoz, gaur egun daudenen neurritakoa (4x3) metrotakoa izango litzateke, hegalez gehiengo altuera 2,00 metrotakoa izango duelarik.
- 3.- Teilatua egurrez egina beharko luke, bi isuritara, kanal teile gorriaz bukatuta eta %30-33ko aldaparekin.
- 4.- Fatxadaren ixtura blokez edo ladriloz egingo da, masa zarpeatua eta txuriz pintatua.

ANA ISABEL PLA Andreari, Ipintza eta Ainene Artetxe arteko bidea egokitze baimena eman zaio, baldintza hauekin:

1.- Obrak hasi aurretik:

Udal teknikariarekin batera obraren birplanteoa egin beharra dago zein alderditan bota behar den hormigoia eta zeintzuetan ez finkatzeko. Baita urak isurtzeko tartearik non utzi behar diren ere finkatzeko.

2.- Obraren zehar:

Zabalera errespetatuko da eta inoiz ez da 3 m. baino haundiagoa izango. Ez dira, bide bazterrak ikutuko eta ezpondak dauden bezala mantenduko dira lur mugimendurik egin gabe.

Hormigoia azpian, behar dituen aldapa guneak emateko balastroa botako da eta zapaldu egingo da. Ondoren hormigoizko firmeak 15 zm. lodi izango du.

3.- Obrak amaitu ondoren:

Udal teknikaria ikuskapen bisitaldia egingo du ziurtatzeko ea obrak ondo eginak dauden behin behineko harrera egiteko.

4.- Egokitu behar den bidea herri-bidea izanik, pasabidea beti libre izango da.

ANGEL GARRIDO ALONSO Jaunari, Goltzur Baserriaren teilatua berritzeko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

Kontutan izanik soliboak eraikuntzaren egituraren elementuak direla obra nagusizat hartu beharko litzateke kontzeptualki eta ondorioz eskabideari proiektu teknikoa sinatua eta bisatua erantsi beharko litzaioke. Berritze lan hauek eraldaketarik suposatzen ez dutenez, obra txikitzat hartu daiteke eta lur legea (1/1992) kontutan izanik, hau da antolaketaz kanpo ez dagoenez (137 Art.) 21.1 artikulua arabera, eraikuntzez jabeei dagokie segurtasun,

osasanbide eta ornato publiko baldintzak gordetzea, geraz eskabidearekin aurrera egiteko Administral Prozedura kontutan izanik, aurrekontua aurkeztea beharrezkoa da.

Obra hauek ez dute beste inolako obrarik babesten. Eraikuntzan bizitza antolatzeke beste obrak egin behar badira, kontutan izanik eraikuntzaren egoera orokorra, proiektu tekniko sinatu eta bisatua beharrezko izango da, kokatzen den zonan indarrean dauden AASSetako 17. artikuluan orain dauden eraikuntzak finkatu egingo direla aipatzen dela.

INAXIO ZEBERIO ARTOLA Jaunari, Etxeberri eta Asura-txeberrri baserri arteko bidea, zoladura boteaz berritzeko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

- Gutxienez 3 m.ko zabalera izan behar du.
- Orma berririk egin beharko balitz harrizkoak edo harrizko kofradura galduaz izango dira.
- Ezpondetan, bertako landareak aldatuko dira.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamaikak direnean.